



# **Bizikidetza P**roiektua



**BIZIKIDETZA PLANA**  
PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA  
BERRIKUSKETA: 2006-07  
ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007

## **1.- OINARRIAK, HELBURUAK, ILDO NAGUSIAK**

- 1.1. Sarrera
- 1.2. Legedia
- 1.3. Definizioa
- 1.4. Ildo nagusiak eta helburuak
- 1.5. Balioen definizioa

## **2.-IKASTETXEAREN ETA INGURUNEAREN EZAUGARRIAK ETA EGUNGO EGOERA.**

- 2.1. Ikastetxearen kokagunea
- 2.2. Ezaugarri sozio-ekonomikoak
- 2.3. Ikasleriaren ezaugarriak
- 2.4. Gurasoen ezaugarriak
- 2.5. Irakasle-langile taldea
- 2.6. Ikastetxeko guneak
- 2.7. Ikastetxeko giroa
  - 2.7.1. Irakasleak-Irakasleak
  - 2.7.2. Irakasleak-Irakasleak
  - 2.7.3. Irakasleak-Irakasleak
  - 2.7.4. Ikastetxea-Familiak
- 2.8. Egungo bizikidetzaren egoera

## **3.- URTEKO ELKARBIZITZA PLANA**

- 3.1. Prebentzio estrategiak
- 3.2. Interbentzio estrategiak
- 3.3. Bizikidetzaren trataera curricularra

## **4.- ELKARBIZITZAREN INGURUKO GORABEHEREN AURREAN SEGITU BEHARREKO JARDUNBIDEA.**

- 4.1. Barne Araudia
- 4.2. Ohiko diziplina ezen aurrean jarraitu beharreko prozesua
- 4.3. Elkarbizitzarako oinarrizko arauen kontra ematen diren errespetu falta larrien aurrean hartzen den neurri berezia



4.4. Berdinen arteko gatazka edota ikaskideen jazarpen eta larderia dela eta, esku hartzeko eskaeretan egin beharrekoa

4.5. Hezkuntza komunitateko partaideen arteko bizikidetza gatazka

## **5.- ELKARBIZITZA GAIETAN PARTE HARTUKO DUTEN ORGANOK.**

### **5.1. Ikastetxeak**

5.1.1. Ikastetxeak ElkARBIZITZA Batzordea

5.1.1.1. Osaketa

5.1.1.2. Eginkizuna

5.1.2. KEI III. EREMU: ElkARBIZITZA eta harremanak

5.1.2.1. Osaketa

5.1.2.2. Eginkizuna

5.1.3. Ikastetxeak Diziplina Batzordea

5.1.3.1. Osaketa

5.1.3.2. Eginkizuna

5.1.4. Zuzendaritza

5.1.4.1. Eginkizuna

5.1.5. Orientatzailea

5.1.5.1. Eginkizuna

### **5.2. Ikastetxez kanpokoak**

5.2.1. ElkARBIZITZARAKO aholkularitza

5.2.1.1. Eginkizuna

5.2.2. Ikuskaritza

5.2.3. Osasun ate Gizarte Zerbitzuak

5.2.4. Beste profesional batzuk

## **6.- ARTEKARITZA**

## **7.-ERANSKINAK**

## **8.- IKASTETXEKO BESTE AKORDIO BATZUK.**



## 1.-OINARRIAK, HELBURUAK, ILDO NAGUSIAK

- 1.1. Sarrera
- 1.2. Legedia
- 1.3. Definizioa
- 1.4. Helburuak

### 1.1. SARRERA

Badira urteak gure ikastetxean elkarbizitzaren inguruan hainbat ekimen eta jarduera burutze ari garela. Orientazio Departamenduaren gidaritzapean eta etapetako bileretan adostu ondoren, tutoreak izan dira tutoretza planen garapenaren bidez geletan gauzatu dituztenak.

Bestalde gure Ikastetxeko oinarrizko funtzionamendu eta elkarbizitzarako arauak Barne Araudian jasoak daude eta hezkuntza komunitateko partaide guztien eskubide eta betebeharrak bertan adostuak daude, horien jarraipena egiteko prozedurarekin batera.

Oraingoan Elkarbizitza Proiektu orokor bat osatu nahi dugu, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren barne kokatuko dena, epe luzerako izango dena eta urteko plan zehatzetan garatuko dena. Horretarako ezinbestekoa da hezkuntza komunitateko sektore guztien inplikazioa eta partehartzea (ikasleak, irakasleak, familiak, langileak, ...), sustatu nahi dugun bizikidetzaren eredu izan dadin.

Hau guztia lortzeko prozesuaren gidaritzza KEI III. Eremuko Elkarbizitza eta Harremanak) hobekuntza taldeak hartuko du. Eguneroko bizikidetzaren azterketa egingo du sektore desberdinetan eta bere proposamen eta aholkuak estamentu eta organo desberdinetara bideratuko ditu (Klaustroa, Zuzendaritza Batzordea, Gestio Batzordea, Orientazio Departamentua, ...) eztabaidatuak eta adostuak izan daitezzen.

Azkenik, Bizikidetzaren Proiektu honetan jasoko diren ildo, jarraitu beharreko printzipioak eta helburu nagusiak urteko elkarbizitza planetako jardueretan zehaztu eta gauzatu dira kide guztien partaidetza zabalaren bidez.



## 1.2. LEGEDIA

- Elkarbizitza proiektu honek kontuak hartuko ditu, uztailaren 5eko 632/2005 Ebazpena, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxeetan elkarbizitza hobetzeko plana ezartzen duena.
- Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, Reguladora del Derecho a la Educación. L.O.D.E.
- Resolución 632/2005 de 5 de Julio de la Comunidad Foral de Navarra.
- Real Decreto 732/1995, de 5 de Mayo por el que se establecen los
- Derechos y deberes de los alumnos y las normas de convivencia de los centros.
- RRI del Centro.
- Documentos del Gobierno de Navarra sobre “Cómo mejorar la convivencia en los Centros Escolares” y “Desarrollo de conductas responsables”.



### 1.3 DEFINIZIOA

Ikasleen osoko heziketa ahalik eta baldintza honenetan egiteko elkarbizarako giro egokia lortzea ezinbestekoa da.

Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko hartu-emanetan sortzen den giroak eragina du bai elkarbizitzan bai ikasketa prozesuan eta horregatik ikastetxeak elkarbizitzako eta bortxazko jokabideei aurrea hartzen saiatu behar du. Horrek eramaten gaitu pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa hobetuko dituzten jarduerak bultzatzea Ikastetxean, gure Hezkuntza Proiektuan jasotako baloreetan oinarrituriko hezkuntzari lehentasuna emanez.

Besteekiko harremanen bidez ikasten dugu elkarrekin bizitzen, elkar errespetatzen, norberaren ardura eta erantzukizuna jasotzen, eta adiskidetasuna eta elkartasuna lantzen. Halaber, berezko prozesu honetan, batzuetan gatazkak dakartzaten desoreka nabarmenak gertatzen dira, bortxazko jokabideak ere agertu daitezkeelarik. Horren aurrean eta beti ere prebentzioaren ikuspegia aintzakotzat hartuz, beharrezkoa ikusten dugu halako egoerei aurre hartzeko neurriak indarrean jartzea, batez ere ikaskideen arteko jazarpen edo larderia kasuak ekiditeko.

Hau guztia lortzeko ezin bestekoa da bizikidetzaren ikuspegi global batetik abiatuz, hezkuntza komunitateko sektore guztien inplikazio estua lortzea, errespetuzko jarrerak eta harreman giroa hobetuko duten jarduerak gartzeko, elkarrizketa, adostasuna eta elkarlana oinarritzat hartuz.

Azken finean proiektu honen xedea, hezkuntza proposamenen bidez, ikastetxeak oinarritzko eskubideak, askatasuna eta bizikidetzaren printzipio nagusiak garatzeko tresna eraginkor bat izatea da, partaide guztien eta bereziki ikaskideen arteko harremanak eta bide batez ikasketa prozesua hobetzeko.



#### 1.4. ILDO NAGUSIAK ETA HELBURUAK

- Bizikidetza Proiektuaren helburua elkarbizitza hobetzeko ekimenak sustatu eta garatzea da.
- Bere bidez hezkuntza komunitatea osatzen duten kide guztien arteko harremanak modu egokian bideratzea lortu nahi dugu.
- Sor daitezkeen gatazkak hezkuntza irizpideekin eta modu baketsuan konpontzeko bideak ezarri nahi ditugu.
- Baketsua eta errespetuan oinarritutako elkarbizitzarako beharrezkoak diren arauak eta hezkuntza komunitateko kide guztien eskubide eta betebeharrak ezagutzera emateko ekimen prebentiboak lehentasuna emanen diogu. Horretarako ditugun tresnak erabiliz (Tutoretza Plana, formazioa, ...)
- Elkarbizitza Plan honen ezarpenean eta jarraipenean hezkuntza komunitateko kide guztiak inplikaturiko ditugu.

#### Oinarrizko printzipio hauek ondorengo helburuetan zehazten dira:

- Bizikidetza giro egokia lortu ahal izateko ekimen prebentiboa garatu.
- Kideen arteko harremanak elkarrenganako errespetuan, elkargunean, elkartasunean eta elkarbizitza arauen barneratzean oinarritu.
- Gatazkak ekidin eta jokabide larrienak gutxitzeko gelako giroa nahasten duten jokaera disruptiboak ahal den gutxitu.
- Gatazken konponbidea era hezitzailean ikasle eta irakaslearen arteko negoziazioaren eta ahaleginaren bidez konpontzeari lehentasuna eman.



- Egungo gatazken aurrean ahal den neurrian era proaktiboan jokatu, hau da, etorkizunean gerta daitezkeen gatazkek prebenitzeko bitarteko eraikitzailetzat hartuz.
- Jokabide arazoan aurrean koherentziaz jokatu, irakasle guztien interbentzioak ildo beretik joan daitezzen, ikasleak nahas ditzaketen kontraesanak ekidinez.
- Jokabide disruptiboan arazoak aztertu eta ahal den neurrian konpondu, aurrerago sor daitezkeen elkarbizitza arazoak konpontzeko aurre pauso gisa.
- Zigor neurriak elkarbizitza arazoak konpontzeko azken baliabide gisa erabili, gainerako motibazio eta hezkuntza estrategiek huts egin dutenean eta interbentzio ezak kalte gehiago sor dezakeenean soilik.
- Hezkuntza komunitateko kide guztien formazioa sustatu, gatazkek tolerantziaz eta indarkeriarik gabe konpon ditzaten.
- Gehiegizko indibidualismoaren aurrean talde lana sustatuz lan solidario eta kooperatibokiko interesa garatu.





## BALIOEN DEFINIZIOA

Balioak, berez, ez dira hezkuntza curriculumean lantzeko edukiak, eta balioez hitz egiteak, ez du gure ikasleek arlo horretan doktrinamendurik jasoko dutenik esan nahi ere. Balioetan hezteak aldiz, denboran irauten duen lana eskatzen du, balioak garatzeko guneak sortzea, ulertzen lagunduko duten jarrerak behatzea, azken batean, hezkuntza komunitatearen barnean eta nahita egindako planifikazio bati esker agertzen diren balio horiek bizitzea alegia.

Honek guztiak, norberaren konpromisoaz gain, antolaketa eredu demokratiko eta parte-hartzailea eta ikerkuntzan, parte-hartzean, hausnarketan, kritikan eta irakaskuntza aktibo eta eraikitzailean oinarritutako ildo metodologiko argiak eskatzen ditu.

## AUTONOMIA

Geure burua osotasunean sentitu eta bizitzeko gaitasuna da, ezaugarri fisiko, intelektual, emozional eta harremanezko bereziak dituen "ni" baten existentziaz jabe eta erantzule izanez, aukera eta erabaki pertsonal, profesional, akademiko... askeak hartuz eta burujabetasunez jokatzuz.

Autonomiaz ari garenean, hautatutako aukera garatzeko beharrezkoak diren ekimenak norberaren iritziz aurrera eramateko eta erantzukizunez bere gain hartzeko posibilitateaz ari gara, nola eremu pertsonalean nola giza edo lan arloan.

Pertsona autonomoa izatea, norberaren bizitza, analisia, hausnarketa eta kontzientziaren bidez, era aktibo eta arduratsuan kudeatzeko gai izateko gaitasuna izatea da. Gainera, ideiak ekintza bihurtzeko gaitasuna izatea esan nahi du, hau da, nork bere helburuak zehaztu, proiektuak planifikatu eta kudeatu aurreikusitakoa lortzeko xedez.



## ERANTZUKIZUNA

Erantzukizuna, norberaren erabakien ondorioak onartzeko eta norberaren ekintzen aurrean erantzuteko gaitasuna da. Era egoki eta eraginkorrean erabakitzeko trebezia da, hau da, gizarteko arauen eta or-ohar onartutako "aurreikuspenen" mugen barruan.

Pertsona erantzuleek, egoera ezberdinak era eraginkorrez baloratzeko eta kontsekuenteki erabakitzeko bitartekoak, jarrerak eta baliabideak dituzte, bizitzen dituzten esperientzietatik ikastea errazago gertatzen zaielarik.

Erantzule izateak, egiten dugunak geure buruari dagokion eremua gainditzen duela eta besteengan eta inguratzen gaituenarengan ere eragina duela konturatzea dakar. Errealitate osoa jasotzen duen ingurua: naturari eta gauzei, beste pertsoneri eta baita neuri ere. Geure inguruan gertatzen denaren erantzule eta protagonista gara.

## TOLERANTZIA

Tolerantzia, ezberdintasunaren aurrean errespetua eta begirunea agertzeko gaitasuna da, norberarengandik ezberdina den izateko eta jokatzeko modua edota zilegizko aniztasuna besteengan onartzeko jarrera moduan ulertua.

Tolerantziaren xedea bizikidetza baketsua da, banakotasuna eta aniztasuna ezagutz. Beren naziotasuna, erlijioa edota kultur ondarea dela eta ezberdin ikusten diren pertsonekin loturiko estereotipo edo aurreiritziak aurkitu eta baztertzeiko aukera eskaintzen digu tolerantziak.

Hiru dira tolerantzia jarrerak sustatzeko eragitea komeni diren oinarritzko tasunak:

- a)Gizarte ezberdintasunak ulertzeko gaitasuna
- b)Estatus berdintasuna
- c)Adiskidetasun harremanak ezartzeko aukerak



## **ERRESPETUA**

Errespetua, gizarteari eta banakakoei datxezkien berezko eskubideak eta balioa ezagutzeko gaitasuna da. Eskubide eta balio hauek, pertsonak bizitzan maila altuagoko xede batekin konprometitzeko zio moduan ulertu behar dira. Eskubide intelektualekiko eta ideia orijinalekiko errespetua eta nazioarteko ezagutza, bazterketarik gabe ikusi behar dira. Bizitzaren handitasuna pertsona bakoitzarengan dago, eta beraz, edonork du errespetuz eta duintasunez bizitzeko eskubidea.

Errespetua norberarengan hasten da. Errespetuaren abiapuntua, gizabanakoen izaera berezi eta bakarraren ezagutzan oinarritzen da. Norberaren ulermenarekin esperimentatzen da benetako auto-errespetua eta horregatik norberarenganako errespetuaren balioa garatzea da xedea, eguneroko bizitzan praktikara eramanez.

## **AHALEGINA**

Ahalegina, geure alderik onena ateratzea ahalbideratzen duen gaitasuna da, burutzen dugun ekintzan gogo eta ahalegin guztia jarriz. Eusten eta amaieraraino iristen laguntzen digu, agertu daitezkeen zailtasun guztiak gaindituz, ezarri ditugun helburuak lortu arte.

Ikasleak, sor dakizkieken zailtasun eta oztopoei aurre egiteko beharko dituzten gaitasunak garatzen laguntzeko estrategiaz eta baliabidez hornitzea da helburua, konformismoa edo ezintasuna, gauzak ez baloratzea eta horrekin batera beraietaz gozatzeko ezintasuna eta entusiasmo gabekia bezalako sentimenduen ondorio txarrak ekidinez, horrela, garapen pertsonalerako arriskutsuak izan daitezkeen jokabideak saihestuz.

## **AUTO-ESTIMUA**

Auto-estimua, norberak bere buruarekiko duen jarrera da. Bizitzan zehar faktore ugariaren eragina jasotzen duen prozesu dinamikoa da. Garrantzitsua da azpimarratzea haur baten auto-estimua, inguratzen duten baldintzen eta pertsonen arabera, aldakorra izan daitekeela.



Gertakari baikorrek auto-estimua positiboa indartzen dute eta porrotek berriz auto-estimua ezkorra pizten dute, biak aldi berean ere gerta daitezkeelarik eguneroko bizimoduan. Norberaren balorazio positiboa jasotzeko garapen psikologiko osasuntsu eta orekatua errazten du, bai bere inguruarekin, bai harramantzen den pertsonekin.

Ekintza zehatzak sustatu behar dira, eskaintzen zaien heziketaren ondorioz ikasleek auto-estimua egokia gara dezaten.

## **LANKIDETZA**

Lankidetzaren helburua, giza harremanetan guztiek onurak jasotzea da eta elkarren arteko errespetuan oinarritzen da. Balioak, begiruneak, zaintzak eta parte-hartzeak eskaintzen dute lankidetzaren prozesua garatzeko beharrezkoa den abiapuntu oinarria.

Lankidetzak, orekatasuna, gaikuntza, erraztasuna eta entusiasmoa bermatzen ditu. Bakoitzak urrats bat emateko, txikia bada ere, bitartekoak ezartzen ditu, gero urrats horiek guztiak baturik helburua lortzea ahalbideratu dezaten.

Lankidetzaren posible da erraztasunez eta ez astuntasunez ematen denean. Eta erraztasunez emateak, zintzotasuna eta emankortasuna eskatzen ditu. Emankortasunak berriz, norbera beste guztien lankidetzaren jasotzeko gai egiten du. Norberak besteengan sinesten badu eta konfiantza erakusten badu, beraiengan ere sentimendu berberak eraikitzen ditu, eta honek errespetu, laguntza eta elkartasun giro aberasgarria sortzen du.

## **ELKARTASUNA**

Besteekin eskuzabalez erlazionatzeko gaitasuna da, pertsona bakoitzak bere burua den bezalakoa onartzea, bere desberdintasun eta mugak, alde positiboak eta negatiboak, auto-ezagueratik hasi jokoera koherentea izan eremu pribatuan, etxekoan eta publikoan eta erlazionatzen den pertsona guztiekin.



Elkartasuna elkar ezagutze eta desberdintasunei errespetuen bidez garatu egiten da. Jarrera honek zera suposatzen du: tolerantzia eta ulermenetik pertsona guztiak, gizartearen balore nagusien edo "normala" edo onargarri ulertzen denaren barruan egon ala ez, onartu eta errespetatu egiten dituzten berdintasunezko harreman-baloreekin konpromisoa hartzen dugula.

## **SORMENA**

Egoera ezberdinei aurre egiteko norberak dituen baliabideak erabiltzeko gaitasuna da, aukerak sortuz eta konponbide berritzaileak bilatuz.

Ikasleek lan eta ekimenei aurre egiteko egoerak sustatu behar dira, hauek aurrera eramateko era berriak bilatuz, ikerkuntza, aurkikuntza eta erantzun ezberdinen azterketa bultzatuz.

## **ZENTZU KRITIKOA**


Ingurune soziokulturalaren gaineko azterketak eta hausnarketak egiteko gaitasuna da, errealitatearen eta aldaketen inguruko beste ikuspegi batzuekiko jarrera malguak sustatuz.

Kritika eraikitzailea sustatu behar da, ikasleak gertaera ezberdinen aurrean beren jarrera aldatzeko eta beraien mugak ezagutzeko beren inguruan aktiboki parte hartzeko gai izan daitezen.



## 2.-IKASTETXEAREN ETA INGURUNEAREN EZAUGARRIAK ETA EGUNGO EGOERA.

### 2.1.IKASTETXEAREN KOKAGUNEA



### - KOKAPENA

Iñigo Aritza Ikastolak bere baitan ondorengo herriak hartzen ditu: Urdiain, Olazti, Ziordia eta Altsasu. Egun, Olaztin eta Altsasun ditu bere egoitzak.

Oro har gure eraikuntzetan gune hauek aintzat hartuko ditugu bizikidetzaz arazoak sor ez daitezkeen ekiditeko:

- Ikastola aurreko autobus geltokiak ikasleen joan etorritarako
- Autobusak
- Ikastetxera sarrera – irteerak
- Pasabideak
- Atsedendialdiak
- Komunak



**BIZIKIDETZA PLANA**  
PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA  
BERRIKUSKETA: 2006-07  
ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007

- Pilotalekua
- Gelak
- Erabilera komunekeo gelak: informatika, laborategia, aretoa, liburutegia, psikomotrizitate gelak, tailerra, ...
- Jantokia
- Idazkaritza – Fotokopia gela
- Irakasle gelak

## - EZAUGARRI SOZIO-EKONOMIKOAK

- Altsasu 7004 biztanle
- Olatzagutia 1708 biztanle
- Urdiain 638 biztanle
- Ziordia 404 biztanle

Lanpostu gehien sortzen duen sektorea bigarrena da, hau da, industria. Aipatzekoak dira batez ere: industria kimikoa, metalurgia, eraikuntza, garraio materiala... Altsasu industria gune garrantzitsua da. Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabaren arteko komunikabide gune garrantzitsua da bai errepidez, bai trenbidez eta honek industria erakartzeko lurralde aproposa bihurtzen du.

## 2.2. IKASLERIAREN EZAUGARRIAK



### 2.3. GURASOEN EZAUGARRIAK

Orokorrean ikastetxeko ikasleen familiak bikote gazte iraunkorrez osaturik daude eta seme-alaba kopuruari dagokionez hala banaturik:

- Seme-alaba bakarra ... 141 (%58,5a)
- Bi seme-alaba ..... 95 (% 39,4a)
- Hiru seme-alaba .....5 (%2a)

GUZTIRA 241 familia

Orokorrean familien maila ekonomikoa eta kultura ertaina da eta maila baxukoak presentzia oso bakana da. Beren seme-alabentzat euskaran eta euskal kulturaren oinarritutako kalitatezko hezkuntza nahi izatea dute ikastetxe honetan sartzeko arrazoi nagusia eta Kooperatibakoa izaera izanik, kontuan hartzeko a da beren gain hartzen duten konpromiso eta lan inplikazio maila.

Gurasoen euskara ezagupen maila baxua da % ..... Eta hau eragozpena da beren seme.-alaben ikasketa prozesuaren jarraipenean.

Garrantzi berezi ematen zaio bi urteko haurren sarrera prozesuari eta bertan familien inplikazioari.



INGO ARTEZA IKASTOLA

#### **BIZIKIDETZA PLANA**

PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA  
BERRIKUSKETA: 2006-07  
ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007



## 2.4. IRAKASLE/LANGILE TALDEA

Guztira 28 dira langile dozentek eta horietatik 25ek behin betiko kontratua dute (%89,3a) eta hiruk behin behinekoa. Hau datu positiboa da Ikastetxeko bizikidetzari dagokionez bertako arauak, funtzionamendua, ... ezagutzeko eta koherentziaz jokatzeko garaian, hala nola bizikidetzaren inguruko gaietan inplikatu eta parte hartzerakoan.

Ez dozenteei dagokionez 12 dira guztira, horietatik 9 behin betiko kontratudunak eta 3 behin behineko kontratudunak. Hauen inguruan dozenteen balorazio berbera egin dezakegu.

Gainera ikastetxean langile gehienek lan esperientzia luzeak ere bizikidetzan eragin positiboa du.

### - DOZENTEAK:

- Haur Hezkuntza: sei tutore eta bi laguntzaile
- Lehen Hezkuntza: zortzi tutore eta ingeleseko irakasle espezialista
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: lau tutore, ingeleseko irakasle espezialista, musika irakasle espezialista eta gorputz hezkuntza irakasle espezialista.
- Bi laguntza irakasle.

### - EZ DOZENTEAK:

- Orientatzailea
- Zuzendaria
- Bi administratzaile
- Bost autobús laguntzaile
- Lau garbitzaile



- EGONKORTASUNA:

	BEHIN BETIKOAK	KONTRATUDUNAK	LANALDI OSOKOAK	LANALDI PARTZIALA
DOZENTEAK ... 28	25	3	22	6
EZ DOZENTEAK 12	9	3	3	9

- ADINA

TARTEAK	DOZENTEAK	EZ DOZENTEAK
20-30	2	-
31-40	7	6
41-50	15	4
51 >	4	2
	<b>28</b>	<b>12</b>
<b>Batezbestekoa 40 urte</b>		



## 2.5. IKASTETXEKO GUNEA

### ESPAZIO ETA INSTALAZIOAK

- Olaztiko Ikastola: bi gela, psikomotrizitate gela, bideo gela, irakasle gela, komunak eta jolastokia.
- Altsasuko Ikastola, Haur Hezkuntza: lau gela, psikomotrizitate gela, bideo gela, irakasle gela, komunak eta jolastokia.
- Iñigo Aritza, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: hamahiru gela, bikoizketetarako gela, informatika gela, liburutegia, laborategia, bi irakasle gela, Orientazio bulegoa, laguntza gela, bi tutoretza, eskola irratia, ekitaldi aretoa, teknologia tailerra, biltegia, idazkaritza, Zuzendaritza bulegoa, komunak, pilotalekua, bi kirol pista, berdegunea.

## 2.6. IKASTETXEKO GIROA

Hezkuntza pertsonaren garapen prozesua den heinean, bere xedea norberak bere bizi proiektua eraikitzen laguntzea da, bai esparru pertsonalean, nola senitartean, gizartean, lan munduan, adiskide eta aisiaren esparruan...

Hezkuntzan faktore ugari parte hartzen dute, familiak eta gizarteak besteak beste, eta gure kasuan bereziki Ikastolak berak.

Gure Ikastola ikasleen heziketa integralerako gune moduan antolaturik dago eta horrekin batera bertako hezkuntza komunitatea osatzen duten ikasle, irakasle, bestelako langile eta gurasoen bizikidetza esparrua da.

Gure Ikastolak bere bizikidetza arauak ditu, komunitateko kide guztien artean demokratikoki adostuak eta onartuak eta guztiok gara ikastolaren funtzionamendu egokiaren erantzule.



Ikastolan, bertako kide guztien arteko harremanak errazak eta formatzaileak izan daitezen, giro alai eta konfiantzazkoa sustatu nahi dugu, gure helburua, begirunea eta lankidetzaren ardatz dituen harremanen bidez, ikasleei, irakasleei, beste langileei eta gurasoei lanerako eta eragozpen edo oztopoak gainditzeko poztasun giroa eskaintzea delarik.

### **2.6.1. IRAKASLEAK-IKASLEAK**

Irakaslea da ikasle taldearen heziketa prozesuaren erantzule nagusia eta bere esku dago taldearen gaineko autoritatea. Autoritate hau ikasleek onartua izanen da, eta irakasleak beraienganako erakutsitako arduraz, lanaz eta konpromisoaz irabazten da.

Irakasle eta ikasleen arteko harremanak errespetuan, laguntzan eta konfiantzan oinarritu behar dira, ikasleak, onartuak, baloratuak eta babestuak senti daitezen eta horretarako irakasleek ikasleen ekintza positiboak indartu beharko dituzte.

Irakasle eta ikasleen arteko harremanetan, bizikidetzaren mesedetan, bereziki elkarrizketa eta elkar entzutea landuko dira. Gelan irakasleak jarrera konprometitua, demokratikoa, entzutetsua eta eskuzabala agertuko du, beti ere diziplina baten barruan.

Diziplina, beharrezkoa da edozein hezkuntza prozesutan eta horrekin batera gelako eta ikastetxeko arauak. Diziplinak demokratikoa izan behar du, hau da, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko errespetuan, eskubide eta betebeharretan eta hauek betetzeko gaitasunean oinarritua.

Prozeduraren ikuspuntutik, elkarrizketan, arrazoitzean, negoziazioan eta elkar ulertzean oinarritzen da diziplina eredu hori.

### **2.6.2. IKASLEAK-IKASLEAK**

Ikasleak dira gure hezkuntza komunitateko kide garrantzitsuenak, alde batetik beraiei zuzenduta daudelako ikastolaren eginkizuna eta antolamendua eta bestetik beraietako bakoitza bihurtzen delako bere buruaren heziketa prozesuaren erantzule nagusia.



Giro atseginean lan egin eta hezi daitezzen, ikasleen arteko harremanak errespetuan, aniztasunaren onarpenean, kooperazioan, tolerantzian eta bizikidetzan demokratikoan oinarritu behar dira.

Ikasleen arteko harremanetan bereziki zaindu eta landuko dira egungo gizartean hainbat gizatalderekiko ematen diren gutxiespen eta bazterketa jokabideak saihesteko balioak (tolerantzia, errespetua, auto-estimua, lankidetzan, elkartasuna).

Ikasleen arteko harremanetan Ikastolako hezkuntza komunitateko kide guztien artean adostu eta onartutako bizikidetzan arauak errespetatu eta beteko dira.

### **2.6.3. IRAKASLEAK-IRAKASLEAK**

Irakasleak dira egunerokotasunean Ikastolaren funtzionamendu egokiaren, ikasleen heziketa prozesuaren eta bertako bizikidetzan kalitatearen erantzule nagusiak eta beraz funtsezkoa da beraien arteko harremanak errazak eta adeitsuak izatea.

Irakasleen arteko harremanak errespetuan, elkarlanean, aniztasunean eta bizikidetzan demokratikoan oinarritutako dira, ikastolak bere helburuak bete ditzan giro alai eta konfiantzazkoa sustatzeko.

Irakasleen arteko harremanetan, norberak bere autonomia esparrua izanen du bere erabakiak iritzi propioz eta askatasunez hartzeko, guztien izaera, ezaugarri psikiko eta fisikoak, ideologia, bizi planteamenduak... edota beste edozein berezitasun errespetuz hartuko delarik

Bestalde hezkuntza prozesuan irakasleen eginkizunetan funtsezkoak dira bereziki elkarlana, koordinazioa, informazio trukaketa... eta prozesu hori arrakastatsua izan dadin ezinbestekoa beraz, beraien arteko harremanak elkarriketa, enpatian, negoziazioan, adostasunean, konpromisoan, eskuzabaltasunean, partehartzean, alaitasunean ... oinarritzea.

### **2.6.4. IKASTETXEA-FAMILIAK**



Gurasoak dira seme-alaben lehen eta legezko hezitzaileak eta irakasleekin BATERA, bakoitza bere eginkizun propioetan, ikaslearen nortasuna osatzeko lagunduko dioten GIRO EGOKIA lortu behar dute.

Ikaslea, gizarteko talde desberdinetan partaide izaten, sentiarazten, ahaleginduko dira: familia, gela, lagun-talde eta herriko partaide izaten. Bestalde, ikasle batek beti aurkitu beharko luke bere adierazpenak egiteko konfiantzazko giroa guraso eta irakasleen artean.

Guraso eta irakasleen harremanak heziketa arazoetan irekiak eta orekatuak izango dira, elkar oztopatu gabe eta leialak eta egiazaleak, haurren heziketa baitago jokoan. Beraz, arrazoiketa eta elkarrizketa izango dira harremanen oinarri eta ez nagusikeriak.

Guraso eta irakasleek, seme-alaben heziketari dagozkion erabakiak hartzerakoan, hauen asmoak eta iritziak hartuko dituzte kontuan, heldutasunaren arabera.

- [Elkarbizitzaren gainean irakasleek duten pertzepzioa jakiteko galdetegia](#)
- **Gorabeheren estadistika**
- [Gure inkesta](#)
- [Soziograma](#)
- [Ikaskideen arteko gehiegikerien gaineko galdetegia](#)
- [Eskolako elkarbizitza baloratzeko galdetegia](#)
- [Gure inkesta](#)
- [Familia galdetegia](#)



- [Irakasleriari galdetegia](#)
- [Ikasleei gatazken inguruko galdetegiak](#)

## 2.7. EGUNGO BIZIKIDETZAREN EGOERA

Gure ikastetxean egungo bizikidetza giroa kide guztien harremanetan ona dela esan dezakegu. Urte hauetan guztietan ez da elkarbizitza gatazka oso larririk izan eta emandakoak Barne Araudian jasotako ohiko bidetik konpondu ahal izan dira.

Noizbehinka agertu izan diren gatazka hauek batez ere gelako funtzionamendu normala eragozpen zuten ikasleen jarrerak izan dira (irakaslearen lana eten, materialik ez ekarri, lanerako interes gutxi azaldu, ikastetxeko instalazioak eta materialak behar den bezala ez zaindu, ...) kasuren batean irakasle edo ikaskideenganako errespetu faltaren bat eman delarik, eta batez ere DBHko etapan bildu dira gehienak.

Irakasleen iritzi orokorra, gure ikasleen ohiko jokabidea ona eta errespetuzkoa dela da, eta ikastetxean gustura daudela adierazten dute. Ikasleen iritzia ere zentzu berean doa, elkarren arteko harremanak onak direla diote eta irakasleekin dituztenak ere ontzat ematen dituzte.

Familiekin harremana ugaria eta emankorra da. Familien aldetik oso balorazio positiboa jasotzen du eta garrantzi handia ematen diote ikastetxearekin eta bereziki irakasleekin izaten duten harremanari (gelako bilera orokorrak, tutorearekin banakako bilerak, formazioa, ...) parte hartze datuetan ikus daitekeenez.

Langileen arteko lan giroa eta harremanak ere onak dira, estamentu, organo eta lan batzorde guztien balorazioak adierazten duen moduan.

Etorkizunari begira eta batez ere azken urte hauetan gatazkek hartu duten joera kontuan harturik, ikastetxearen kezka da bizikidetza hobetzeko neurri berriak



proposatu eta aurrera eramatea, batez ere errespetu faltekin edota jazarpen eta larderia kasuekin zerikusia dutenean.

**Gatazka ohikoenak hauek dira:**

- Gelako lana eteten duten jarrerak: Garaiz kanpo hitz egin, baimenik altxatu, ondokoarekin hitz egin, ... (% ...)
- Distrakzioa eta atentzio falta (% ...)
- Beharrezko materiala sistematikoki ahaztea (% ...)
- Errespetu faltekin loturiko ekintzak, ikasleen artekoak eta irakasleenganakoak. (% ...)
- Ikastetxeko edota hezkuntza komunitateko beste kideen instalazio edo materiala kaltetu (% ...)
- Ikastetxeko funtzionamendu normala eragozten duten ekintzak (% ...)








INGO ARTEA IKASTOLA

## **BIZIKIDETZA PLANA**

PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA  
BERRIKUSKETA: 2006-07  
ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007

### 3.-URTEKO ELKARBIZITZA PLANA

#### 3.1. PREBENTZIO ESTRATEGIAK

OBJETIVOS	ACTIVIDADES	RESPONSABLES	RECURSOS	TEMPORALIZACIÓN	EVALUACIÓN
Elaborar el plan de convivencia.	Reuniones de trabajo periódicas para su elaboración y seguimiento	Grupo C de calidad.	<input type="checkbox"/> Resolución 632/2005 del 5 Julio de la Comunidad Foral de Navarra. <input type="checkbox"/> LODE, BOE 4 de Julio de 1985.	Tercer trimestre del curso 2005/2006.	Final de curso 2005/2006.
			<input type="checkbox"/> Real Decreto 732/1995 de 5 de Mayo.  <input type="checkbox"/> R.R.I		
Aprobar el plan de Convivencia en el marco del PEC Y PAT.  Poner en marcha el Plan de Convivencia anual.	<input type="checkbox"/> Reuniones de la CCP. <input type="checkbox"/> Sesiones de Claustro. <input type="checkbox"/> Consejo Escolar.  <input type="checkbox"/> Reuniones de trabajo de los coordinadores y tutores. <input type="checkbox"/> Preparación de la acogida en los cursos. <input type="checkbox"/> Intercambios de información (personal, familiar y escolar) de los	<input type="checkbox"/> CCP <input type="checkbox"/> Claustro. <input type="checkbox"/> Consejo Escolar.  <input type="checkbox"/> Equipo Directivo. <input type="checkbox"/> Coordinadores de ciclo <input type="checkbox"/> Tutores.	Plan de Convivencia  <input type="checkbox"/> Plan de acogida. <input type="checkbox"/> Expediente e informes académicos de los alumnos/as.	Junio 2006  1º quincena del mes de Septiembre. Curso 2006/2007.	
Dar a conocer el Plan de Convivencia a los alumnos.	alumnos entre los profesores que los tuvieron el curso anterior y los que los tendrán este curso.  <input type="checkbox"/> Acogida a los nuevos alumnos tanto a nivel individual como grupal. <input type="checkbox"/> Conocimiento de las normas de convivencia que van a regir en el aula	<input type="checkbox"/> Equipo Directivo. <input type="checkbox"/> Tutores.	<input type="checkbox"/> R.R.I <input type="checkbox"/> Plan de Acogida. <input type="checkbox"/> Plan de Convivencia.	<input type="checkbox"/> 2º quincena del mes de Septiembre.	
 Dar a conocer el Plan de Convivencia a los padres de los alumnos.	y en el centro durante el presente curso. <input type="checkbox"/> Reuniones padres y profesores de comienzo de curso. <input type="checkbox"/> Entrega de tríptico. <input type="checkbox"/> Entrevistas individuales padres y profesores.	<input type="checkbox"/> Equipo directivo. <input type="checkbox"/> Tutores.	<input type="checkbox"/> Folletos. <input type="checkbox"/> Guión de desarrollo de la reunión inicial. <input type="checkbox"/> Modelo de Entrevista.	Octubre.	Al

#### BIZIKIDETZA PLANA

PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA  
 BERRIKUSKETA: 2006-07  
 ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007

finalizar  
 la  
 actividad.

OBJETIVO	ACTIVIDADES	RESPONSABLES	RECURSOS	TEMPORALIZACIÓN	EVALUACIÓN
<b>OS</b> Concienciar a los padres de que su colaboración y participación con los profesores es necesaria para el desarrollo de una buena convivencia en el centro.	<b>DES</b> <input type="checkbox"/> Reuniones informativas padres y tutores.	<b>BLES</b> <input type="checkbox"/> Tutores	<b>OS</b> <input type="checkbox"/> Normas de convivencia. <input type="checkbox"/> Calendario escolar. <input type="checkbox"/> Circular informativa.	<b>CIÓN</b> Una vez al trimestre.	<b>IÓN</b> Al trimestre.
Concienciar a los alumnos de que su colaboración y participación es necesaria para el desarrollo de una buena convivencia en el centro.	<input type="checkbox"/> Tutorías individuales con los alumnos.  <input type="checkbox"/> Se abordará a lo largo del cualquier incidencia puntual que afecte a la convivencia del centro.	<input type="checkbox"/> Tutores <input type="checkbox"/> Equipo Directivo <input type="checkbox"/> Departamento de Orientación.	<input type="checkbox"/> Normas de Convivencia. <input type="checkbox"/> PAT <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> R.R.I	Durante todo el curso	<input type="checkbox"/> Al trimestre. <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> En el momento.
Potenciar determinadas conductas positivas en los alumnos para lograr una buena convivencia en el centro.	<input type="checkbox"/> Celebración del día de la Paz.	<input type="checkbox"/> Tutores	<input type="checkbox"/> Material escolar y dependencias del centro.	30 de Enero (Día de la Paz)	Al finalizar la actividad.
Coordinar charlas sobre temas formativos e informativos.	Encuentros formativos para padres	C.C.P	Circular informativa	Una al trimestre	Al finalizar la actividad.
Favorecer una relación colegio/familia positiva.	<input type="checkbox"/> Reuniones de padres. <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> Encuesta de satisfacción.	Comunidad educativa		Tercer trimestre.	Tercer trimestre.



OBJETIVOS	ACTIVIDADES	RESPONSABLES	RECURSOS	TEMPORALIZACIÓN	EVALUACIÓN
Iniciar el contacto entre alumnos de diferentes cursos con diversas actividades.	<input type="checkbox"/> Sesiones de video <input type="checkbox"/> Salidas <input type="checkbox"/> Actividades conjuntas de culturales. centro.	<input type="checkbox"/> Tutores <input type="checkbox"/> Claustro	<input type="checkbox"/> Material escolar. <input type="checkbox"/> Dependencias del centro.	Una vez al trimestre.	Al finalizar la actividad.
Proponer la creación de una escuela de padres.					
Aprendizaje de estrategias de resolución de conflictos	<input type="checkbox"/> Actividades programadas en el PAT	<input type="checkbox"/> Tutores	<input type="checkbox"/> P.A.T	Durante todo el curso en las sesiones de tutoría	Al trimestre.



IÑIGO ARRITZA IKASTOLA

### BIZIKIDETZA PLANA

PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA

BERRIKUSKETA: 2006-07

ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007

### 3.1. PREBENTZIO ESTRATEGIAK. Ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko neurri prebentiboak prestatzea

HELBURUAK	JARDUERA NAGUSIAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	EPEAK	BALORAZIOA



IRIKO ARITZA IKASTOLA

#### **BIZIKIDETZA PLANA**

PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA

BERRIKUSKETA: 2006-07

ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007

**3.2. INTERBENTZIO ESTRATEGIAK.** Interbentzio neurriak prestatzea, hezkuntza komunitatea osatzen duten taldeen artean identifikatutako elkarbizitza gatazkak konpontzeko

HELBURUAK	JARDUERA NAGUSIAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	EPEAK	BALORAZIOA
<p><b>IRAKASLEAK- IKASLEAK</b> Elkarbizitzaren ondorioz sortzen diren gatazkei aurre egiteko neurri egokiak ezartzea</p>	<p>-Elkarbizitza plana osatu</p> <p>-Elkarbizitza planaren aurkezpena</p>				
<p><b>IKASLEAK- IKASLEAK</b> Ikaskideen arteko harremanetan sorturiko gatazken aurrean jokabide-irizpideak definitzea</p>					



<p><b>IRAKASLEAK- IRAKASLEAK</b></p> <p>Irakasleen arteko harremanetan sorturiko gatazkak konpontzeko irizpideak <b>definitzea</b> eta bideak ezartzea</p>					



### 3.3.BIZIKIDETZAREN TRATAERA CURRICULARRA.-

Bizikidetza lanketa Ikastetxeko curriculumean txertaturik dago zehar lerro moduan arlo eta esparru guztiak hartzen dituelarik eta bereziki lantzen da tutorearen bidez ikasordutegian tutoretzari eskaintzen zaizkion saioetan. Lanketa hau ikastetxeko tutoretza planean zehaztuta dago eta besteak beste puntu hauek jasotzen ditu:

- Tutoreek denbora bat izendatuko dute ikasleei arreta pertsonala emateko eta beraien arteko harremanak sendotzeko
- Tutore bakoitzak jarduera bat burutuko du gutxienez bere taldearekin ikastetxetik kanpo
- Tutoretza orduan honako gai hauek landuko dira:

DBHn,

- Sexualitatea
- Drogamenpekotasunaren prebentzioa.
- Ikasketa eta lanbide-orientazioa
- Ikasturtean zehar eskolan sor daitezkeen era bateko eta besteko gaiak
- Elkarbizitza, diziplina, hezkidetza eta balioak.

LEHEN HEZKUNTZAn:

- Ikasleen arteko harremanak hobetzeko gaitasunak garatu.
- Sexualitatea
- Drogamenpekotasunaren prebentzioa.





- Ikasturtean zehar eskolan sor daitezkeen era bateko eta besteko gaiak.
- Elkarbizitza, diziplina, hezkidetza eta balioak.

#### HAUR HEZKUNTZAn:

- Arauen errespetua.
- Ikasleen arteko harremanak sendotu.
- Ikasleak gustura egon daitezela.
- Elkarbizitza, diziplina, hezikidetza eta balioak.



# TRATAERA CURRICULARRA

IKASLEEKIN

MAILAK	HELBURUAK	MATERIALAK ETA NOIZ LANDU	BILERAK
LH 1.	Pertsonaiak eta beraien ezaugarriak identifikatu. <b>Elkarbizitza Hezkidetza</b> Pertsonai horiei gertatutakoa komentatu eta beraiak horrelako sentimenduak izan dituztena baloratu ..	LAGUNEKIN BARATZEAN, ostegunero	Kurtso hasierako orokorra. Bigarren eta hirugarren ebaluaketan banaka.
LH 2.	Norberaren sentimenduak identifikatu egoera ezberdinetan ( zeloak, tranpak, bakarririk edo baztertuta sentitzea, konplexuak..) <b>Elkarbizitza Hezkidetza</b> Harremanetako trebeziak landu. Naturarekiko ardura eta errespetua..	HEZKIDETZA PROIEKTUA1. hiruhilabetean ostegunero LAGUNEKIN BARATZEAN.  KASTORTXOREN ABENTURAK	Kurtso hasierako orokorra. Bigarren eta hirugarren ebaluaketan banaka.
LH 3.	Autoestima indartzea. <b>Elkarbizitza Hezkidetza</b> Autokomunikazio positiboa landu..	HARREMANAK HOBETZEKO GAITASUNAK 1.-2.-3.	Kurtso hasierako orokorra. Bigarren eta hirugarren ebaluaketan banaka.
LH 4.	Autoestima bizkortu. <b>Elkarbizitza Hezkidetza</b> Autokomunikazio positiboa landu. Gehiegi arduratzeak ekarri ditzaken alde txarrak.Hitz egiteak beharrezkoak dira....	HEZKIDETZA PRIEKTUA  hiruhilabetean ostegunero  HARREMANAK HOBETZEKO GAITASUNA 4.-5.-6.-7.	Kurtso hasierako orokorra. Bigarren eta hirugarren ebaluaketan banaka.
LH 5.	Erabakiak hartzeko eta harremanak eraikitzeko gaitasunak garatu. <b>Elkarbizitza Hezkidetza</b> Ondorio motak barne eta kanpokoak izan daitezela bameratu. Komunikatzeko modu egokiak barneratu. ...	HARREMANAK HOBETZEKO GAITASUNAK 8.-9.-10.-11.	Kurtso hasierako orokorra. Bigarren eta hirugarren ebaluaketan banaka.
LH 6.	Autoestima, lagun arteko abilezia, porrotaren aurreko jarrera baikorra. <b>Elkarbizitza Hezkidetza</b> Ikastetxe, etxe , kalean gertaerak landu, komentatu, ondorioak atera... Ohiturak osasuntsuak	HEZKIDETZA PRIEKTUA  1. hiruhilabetean ostegunero  2. HARREMANAK HOBETZEKO GAITASUNAK 12.-13.-14.-15	Kurtso hasierako orokorra. Bigarren eta hirugarren ebaluaketan banaka.
DBH 1	Bizikidetza eta funtzionamendu arau orokorrak aztertu eta adostu. Nerabezaroa. <b>Elkarbizitza Hezkidetza</b> Ikas-irakas prozesuaren jarraipena taldekoa eta banakoa. Drogomenpetasunaren prebentzioa landu	HORDAGO GIDA URDINA GOZAMENEZ ASTEAN SAIOA BAT	Kurtso hasierako orokorra. Bigarren eta hirugarren ebaluaketan banaka.
DBH 2	Bizikidetza eta funtzionamendu arau orokorrak aztertu eta adostu. Sexu orientazioa. Harremanak <b>Elkarbizitza Hezkidetza</b> . Norberaren eta bizitzaren proiektua. Ikas irakaz prozesua ren jarraipena taldekoa eta banakoa. Drogomenpetasunaren prebentzioa landu	HORDAGO GIDA URDINA GOZAMENEZ ASTEAN SAIO BAT	Kurtso hasierako orokorra. Bigarren eta hirugarren ebaluaketan banaka.
DBH 3	Ikas eta lan ohiturak landu. Sexu orientazioa <b>Elkarbizitza Hezkidetza</b> Bizikidetza eta funtzionamenduko arau orokorrak. Drogomenpetasunaren prebentzioa Irakaz prozesuaren balorapena Ikas orientazioa datorren kurtstorako. <b>BIZIKIDETZA PLANA</b>	PENTACIDAD HORDAGO BARNE ARAUTEGIA GIDA URDINA ASTEAN SAIO BAT	Kurtso hasierako orokorra. Bigarren eta hirugarren ebaluaketan banaka.
PROPOSAMEN BERRIA: III. BERRIKUSKETA. 2006-07 ONARPENA: MAIATZA, EKAITZA	Bizikidetza eta harremanak aztertu eta adostu. Jaialdiaren antolaketa. Ikas irakaz prozesuaren jarraipena egin. Ikasketa orientazioa <b>Elkarbizitza Hezkidetza</b>	PENTACIDAD BARNE ARAUTEGIA. INPRIMAKIAK. ERABAKIAK HARTZEKO PROGRAMA ASTEAN SAIO BAT	Kurtso hasierako orokorra. Bigarren eta hirugarren ebaluaketan banaka.
H.H	Haurrak gustura sentitzea, haurrak ezagutzea, haurren arteko harremanak sendotzea, Arauak errespetatzea. <b>Elkarbizitza Hezkidetza</b>	JOLASAK URTIXINTXA	Kurtso hasierako orokorra. Bigarren eta hirugarren ebaluaketan banaka.



IKASLEEKIN

#### **4.-ELKARBIZITZAREN INGURUKO GORABEHEREN AURREAN SEGITU BEHARREKO JARDUNBIDEA.**

Ikastetxeko lan eta elkarbizitza giro egokia sustatzeko Barne Araudian jasota daude hainbat arau.

##### **4.1.BARNE ARAUDIA**

##### **4.2.3. Elkarbizitzarako eta portaera arauak.**

-Ikasleen betebeharra da Ikastola barruan elkarbizitzarako arauak errespetatzea.

a) Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko elkarrekiko errespetua : ikasle, irakasle, guraso eta irakasleak ez diren langileak. Guztiek kontzientzia askatasuna eta norberaren usteak errespetatuko dituzte, hala nola, hezkuntza komunitateko kide guztien duintasuna, integritatea eta intimitatea.

b) Guztion betebeharra da sexu, arraza edo beste baldintza pertsonal edo sozialengatik inor ez diskriminatzea.

c) Guztiek Ikastolako tresna, altzairu eta instalazioak zainduko dituzte (gelak, tailerrak, laborategiak, informatika gela, zerbitzuak eta komunitatearen gainerako egoitzak) ahalik eta egoerarik hobereanean mantendu eta erabiliz. Materiak hautsi eta hondatzeagatik sortutako gastuak, normal erabili ez direlako, hori eragiten dutenen kontura izanen dira. Akatsen bat eginez gero hura konpondu edo ordaindu beharko du.

d) Ikastolako bulegoak eta abar garbi mantenduko dira, hala nola, korridore, patioak....., paperontzietatik kanpo ez da botako ez paperik ez eta hondakinik.



- e) Ezin da erre Ikastola-barrutian ez eta horretara joateko garraioan.
- f) Ezin da ez alkohola, ez tabakoa ez eta beste substantziarik saldu ez hartu .
- g) Ikastolako Barne Araudia errespetatu behar da, pertsona bakarreko eta taldeko organoen erabakiak errespetatu eta gainerako hezkuntza komunitateko kideekin parte hartu eta elkarlanean aritu irakaskuntza eta elkarbizitzaren garapen hobetza lortzeko asmoz.



## **OROKORRAK**

-Ikasgela, irakasleen gela edo bulegoetara sartu aurretik atea jo behar da eta baimena eskatu.

-Liburutegi, irakasleen gela, fotokopiagailu, informatika gela, musika gela, plastika gela, laguntza gela, bulego edo beste areto batzuetara sartzeko irakaslearekin sartu beharko da edo haren baimenarekin.

-Urtebetetze-ospakizunetan ezin da gozokirik ekarri.

-Garbiketarako txanda bat egingen da ikasgelaka.

-Aurkitutako edozein gauza idazkaritzan utziko da. Ezin da joan ikasgeletan galdezka galdutako zerbaiti buruz edo materiala eskatuz baldin eta ez bada irakaslearen baimenarekin.

-Ikasleak tutore edo irakasleari jakinaraziko diote ikasgela, komun, korridore, etabarretan gertatutako narriadurak, nahita egindakoak zein nahigabeak.

-Telefonoa erabili ahal izateko irakaslearen baimena beharrezkoa izanen da eta deiaren kostua ordaindu beharko da.

-Ikasleentzako fotokopiak bakarrik irakasleek edo bulegoko langileek egin ditzakete irakasleen baimenarekin. Fotokopia bakoitzeko ezarritako prezioa ordaindu beharko da.

## **Haur Hezkuntza**

-Ikasleek patioan dauden bitartean ezin zaie kanpotik ezer ere ez eskaini ( senideak...).

-Ikasleek jostailu bakar bat ekar dezakete Ikastolara eta hau txikia izan behar du bakoitzaren poltsan gordeta ahal izateko.

-Ikasleek ezin dute gozokirik eman ikastolara.



-Ikasgelak goizeko bederatzietan zabalduko dira.

-Ziordi eta Urdiaingo ikasleak eguraldi txarra izanez gero ikasgela bat izanen dute bertan arduradunekin egoteko ikasgelak zabaldu arte.

-Gainerako ikasleak bederatzietan sartuko dira eta ezin izanen dute gelik erabili okupatuak dauden bitartean.

-Bai korridore bai eskaileretan lasai eta orden batekin ibiliko dira.

-Lau eta bost urteko ikasleak banan banan joango dira komunera.

-Jolas garaian komunera ikasgela bakoitzeko bi ikasle baino gehiago ezin dute joan.

-Ikastolako komunak ezin izango dira erabili 4:30etatik aurrera.

-Ikasleak patioan dauden landareak errespetatuko dituzte.

-Ikasleek ez dute paperik botako lurrera.

## **Komunak**

-Lehen hezkuntzako ikasleak komunera joango dira banan banan, beti irakaslearen baimenarekin. DBHkoek jolas garaian joaten saiatuko dira.

-Beharrezkoa da bonbari tiratzea komuna erabiltzen den bakoitzean eta bertan tutueriak itxiko dituen ezer ere ez botatzea.

-Behar den papera bakarrik erabiliko da.



-Komunak behar den bezala erabiliko dira (iturriak itxi, dutzak...)

### **Sartu-ateratzea**

-Ikasle guztiak ARATZ atetik sartuko dira.

-Jolas garaian lehen hezkuntzako ikasleak URBASA atetik sartu eta aterako dira eta DBHkoak ARATZ atetik.

-Lehen hezkuntzako ikasleak pilotalekura joan nahi baldin badute barruko atetik sartuko dira jolas garaia hasieran irakasle arduradunak atea irekitzen duenean. Ordu arte isilik egonen dira.

-Sartu eta ateratzea era lasai eta ordenatuan egingen da.

### **Pilotalekua**

-Pilotalekua erabiltzen ari denean ezin izanen da kanpoko atea itxi. Beti irekita egonen da.

-Ezin da kirol materialik hartu pilotalekutik.

-Baloiarekin jolastea debekatua dago.

-Lehen hezkuntzako ikasleak pilotalekua erabiltzen dutenean pilotatan ibil daitezke gune mugatu batzutan.

-Pilotalekua garbia mantenduko da.

-Pilotalekuko paretetan ezin da margotu.



## **Gelak**

-Ikastolara garbi eta txukun joan behar da.

-Soin Heziketako eskolara behar den arroparekin joan behar da. 3. Mailatik gora dutzatzea derrigorrezkoa da eta 1. eta 2. mailakoek kamiseta aldatu behar dute .

-Guztion zeregina da ikasgela garbi eta txukun mantentzea. Ikasle bakoitzak bere mahaia eta erabiltzen duen gainerako materiala zaintzen du. Mahaia zikinduz gero, dena ezabatu eta garbitu beharko da ezin hobeki uzteko. Nahita narriaduraren bat egiten duen ikasleak berak berritu beharko du.

-Beroki, motxila, karpeta eta eskulanak funtzionamendua edo funtzionamendu normala eragotziko ez duten lekuetan utziko dira, edo horretara zuzendutako lekuetan.

-Eskolak bukatzerakoan aulkiak mahai gainean utziko dira, garbiketako langileen lana errazteko asmoz.

-Ikaslearen zeregina da ikasgelara liburu eta eskatutako material guztiarekin joatea.

-Ikasleek ezin dute beste ikasleen ikasgeletan edo berean eskola-ordutegitik kanpo sartu. Bazkaltzera gelditzen diren ikasleak edo eskolaz kanpoko jarduerak egitera, dagozkien arduradunak ezarritako arauak bete beharko dituzte.

-Eskola batetik besterako tartean ikasleak ez dira korridorera aterako.

-Ikasturte hasieran, ikastalde bakoitzak bere tutorearekin, ikasgelako material eta altzairuen inbentarioa eginen du, eta aldizka begiratuko du.

-Besteen jabegoa errespetatuko da.





-Ikasgelan sor daitekeen edozein arazo edo iradokizun tutorea eta delegatuari jakinarazi beharko zaie zuzenean, eta harrek horren arabera jardungo du.

-Ikasgela barruan jatea debekatua dago (ogitartekoak, txikle, pipak...)

### **Jolas garaia**

-Jolas garaia aisialdi, ongi pasatu eta ikasleek gozatzeko denbora tartea da, eta inoiz ez eztabaida edo borrokarako gunea.

-Lehen hezkuntzako ikasleak jolas garaiaren hasiera eta bukaera aprobetxatuko dute komunera joateko.

-Bigarren hezkuntzako ikasleak komunera bakarrik jolas garaiaren hasieran joan daitezke.

-Jolas orduetan ezin izango da hezkuntza komunitateko kideen integritate fisikoa arriskuan jarriko duten jokorik praktikatu (baloikada).

-Jolas garai orduetan eguraldi txarra dela eta edo beste arrazoiren bat dela medio pilotalekuan jende asko baldin badago eta bertako espazioa ahalik eta hobekien antolatzeke asmoz, pilotatan aritzeak ez du lehentasunik izanen.

#### **4.2.4. Diziplina Araudia**

-Ikastolan horretarako izendatuko diren organoei eta pertsona bakarreko organoei dagokie ikasleek egindako hutsegiteak zehatzea, arau hauetan ezartzen den bezala.

-Ikasleei ez zaie zehapenik jarriko arau hauetan hutsegitetzat hartzen ez den jokabide batengatik.



Ikasle bakar bati ere ez zaio ukatuko eskolatzeko eskubidea, eta horrela ulertuko da klasera joateko duen eskubidea epe hauetatik gora kentzen zaionean.

- a) Hiru egunetik gora Lehen Hezkuntzan, eginiko hutsegite batengatik.
- b) Bost egunetik gora, Bigarren Hezkuntzan, eginiko hutsegite batengatik.

Ezin da inolaz ere jarri ikasleen duintasun eta fisikoaren kontrako zehapenik.

-Zehapenak eginiko hutsegiteei egokituak jarri beharko dira.

-Hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

#### **Hauexek dira hutsegite arinak:**

- a) Puntualtasun hutsegiteak, justifikatu gabeak.
- b) Ikasketa planak aurrera eramateko jardueretan eta ikasketari buruz irakasleek ematen dituzten orientazioekiko jarrera pasiboa agertzea.
- c) Ikaskideek ikasketarako duen eskubidea ez errespetatzea.
- d) Ikastetxearen lokalak, bertako materiala, eta hezkuntza komunitateko gainerako kideen gauza edo haien jabegokoak direnak hondatzea, nahita eta oso kaltetuak ez badira.
- e) Indiziplina, irain edo laidozko ekintzak, eta eraso fisikoak, larriak ez badira.
- f) Justifikaziorik gabeko edozein ekintza, ikastetxearen jarduerak normaltasunez egiteko eragozpen txikia dakarrenean.

#### **Hauexek dira hutsegite larriak:**



- a) Klasera ez joatea, justifikatu gabe denean.
- b) Ikaskideek ikasketarako duten eskubidea behin eta berriz ez errespetatzea.
- c) Hezkuntza komunitateko kideen kontra egindako indiziplina, irain edo laidozko ekintzak, larriak direnean.
- d) Hezkuntza komunitateko kideen kontrako eraso fisiko larriak.
- e) Gaizki erabiltzeagatik Ikastetxearen lokalei, materialei edo dokumentuei edo hezkuntza komunitateko gainerako kideen jabegokoei kalte larriak egitea.
- f) Ikasturte baten barrenean hamabost hutsegite arin egitea.
- g) Justifikaziorik gabeko edozein ekintza, ikastetxearen jarduerak normaltasunez egitea larriki galarazten denean.
- h) Klasetik kanporatua izatea.
- i) Alkohola eta tabakoa saldu eta kontsumitzea.
- j) Ikastola-barrutia uztea irakasle edo tutorearen baimenik gabe.

**Hauexek dira hutsegite oso larriak:**

- a) Hezkuntza komunitateko kideen kontra egindako indiziplina, irain edo laidozko ekintzak, oso larriak direnean.
- c) Hezkuntza komunitateko kideen kontra egindako eraso fisiko oso larriak.
- d) Hezkuntza komunitateko kideen osasuna edo integritatearen kontra doazen jarduketak sustatzea, oso kaltegarriak direnean.



- e) Hutsegite larriak izanik, kolektibitate edo berariazko publizitate arrazoiak biltzen direnean.
- f) Ikasturte baten barrenean hiru hutsegite larri egitea.
- g) Irakaskuntzako ekintzetan besteren izena hartu eta agiri akademikoak faltsutu edo ostea.
- h) Hezkuntza komunitateko kideen kontrako eraso fisikoak, irain edo laidozko ekintzak oso larriak direnean.

#### **Klasetik kanporatzea:**

- a) Klaseko giroa nahasten duten egoera jakin batzuetan, ikaslea klasetik kanpora bidaltzeko aukera izanen da. Kanporatzea eskola aldi edo ordu baterako dela ulertuko da.
- b) Eskola egun horretan bertan eman beharko zaio tutoreari kanporatzearen berri.
- c) Diziplinaren ondorioetarako, klasetik kanporatzea hutsegite larrian izanen da eta zehapena, berriz, idatzizko jakinarazpena eta haren berri ematea gurasoei. Ikasturte batean hiru aldiz kanporatzen badute ikaslea, Diziplina Batzordearen aurrean agertu beharko da, eta honek egokitzen jotzen duen zehapena, lanak eginarazten dituztenen artekoa, jarriko dio.

#### **Tabakoa, alkohola eta beste substantzia batzuk.**

- a) Debekaturik dago alkohola eta tabakoa saldu eta kontsumitzea ikastola barrenean, autobusetan edo ikastetxeak antolatutako beste edozein jardueratan.
- b) Diziplinaren ondorioetarako, arau hori ez betetzea hutsegite larria izanen da eta zehapena, berriz, idatzizko jakinarazpena, haren berri emanez gurasoei, eta ikastetxearen jarduerak hobetzen laguntzeko lanak eginaraztea. Ikasturte batean arau hori hiru aldiz hausten bada, ohartarazpena jasotzeaz gain, zehatuak Diziplina Batzordearen aurrean agertu beharko du eta honek egokitzen hartzen duen zehapena, klasera joateko eskubidea kentzen dutenen artekoa, jarriko dio.



#### ▪ Aparatu elektronikoen erabilpena

Telefono mugikorrek eta bestelako aparatu elektronikoak erabiltzea.

Ikasleek ezin izango dituzte beren telefono mugikorrek eta bestelako aparatu elektronikoak irakaskuntza-jardueretan erabili, ez eta ikastolak antolatutako eskolaz kanpoko jardueretan ere.

Arau hau betetzen ez duen ikasleari, irakasleak aparatua kenduko eta gurasoei itzuliko die. Horretarako, aldeztu aurretik, gurasoek tutorearekin jarri beharko dute harremanetan.

Soilik kasu puntualetan edo salbuespen/ezohiko egoeretan, eta aldeztu aurretik familiak hala eskatuta, eman ahalko dute irakasleek aparatu horiek erabiltzeko baimena

#### **Autobusa:**

Autobusean egindako hutsegite arinengatik, hauen atalean ezarritako zehapenak ezarriko dira.

Hutsegite larriak eta oso larriak garraio zerbitzuaren kentzearekin zigortuko dira, 15 egun gehienez hutsegiteak larriak direnean eta 20 egun gehienez oso larriak direnean, hutsegite larri eta oso larriei dagozkien ataletan jasotzen diren zehapenez gain.

-Hutsegite arinak dagokion irakasleak edo tutoreak zehatuko ditu, haien izaerak hala eskatzen baldin badu.

Hutsegite larriak tutoreak edo horretarako izendatutako organoak zehatuko ditu.

Hutsegite oso larriak horretarako izendatutako organoak zehatuko ditu eta indarreko legediak ezarritakoaren arabera aldeztu aurretik espedientea egitea ekar dezake ( 417/1992 Foru Dekretua).

## **4.2. OHIKO DISZIPLINA EZEN AURREAN JARRAITU BEHARREKO PROZESUA**

#### **Hutsegite arinengatik:**

- a) Ahoz jakinarazi eta hutsegitea ikaslearen fitxan agertaraztea.
- b) Kalteak arintzea lagunduko duten lanak eginaraztea, eskola orduetan.



- c) Ikastetxearen jarduerak aurrera hobeki eramaten lagunduko duten lanak eginaraztea.

#### **Hutsegite larriengatik:**

- a) Idatziz jakinarazi eta gurasoei haren berri ematea (ahozko 15 jakinarazpen pilatzea hutsegite larritzat hartuko da eta puntu honetan zehazten den zehapena ezarriko zaio). Idatzizko jakinarazpenak tutoreari emanen zaizkio gurasoek sinatu ondoren bi eguneko epean.
- b) Ohartarazpena, Ikastetxeko artxiboan gordeko dena.
- c) Bidezkoa bada, egindako kalteak konpontzen edo Ikastetxearen jarduerak aurrera hobeki eramaten lagunduko duten lanak eginaraztea. Lan horiek eskola orduetatik kanpo egin beharko dituzte, gehienez ere hilabetez.
- d) Ikastetxera edo zenbait eskoletara joateko eskubidea kentzea, gehienez ere bi eskola egun, Bigarren Hezkuntzan.  
Hori, inolako ebaluaziorik galdu gabe eta ezertan ukatu gabe ikasleak etxean zenbait lan egin beharko dituela.

Justifikatu gabe klasera ez joateagatik egindako hutsegiteei ezarriko zaien zehapena idatzizko jakinarazpena izanen da. Ikasturte baten barrenean hiru eskola ordutara edo eskola egun oso batera ez joateak ohartarazpena ekarriko du, eta horrez gain, zehatuak Diziiplina Batzordearen aurrean agertu beharko du eta honek ezarriko dio egoki iruditzen zaion zehapena, lanak eginarazten dituztenen artekoa. Ahozko jakinarazpenak pilatzeagatik gurasoei egindako jakinarazpen idatziak hiru baldin badira, zehapena ohartarazpena izanen da, eta Ikastetxeko artxiboan agertaraziko dena.

Ahozko jakinarazpenak pilatzeagatik gurasoei egindako jakinarazpen idatziak hiru baldin badira, zehapena b) azpiatalari dagokiona izanen da (ohartarazpena eta Ikastetxeko agiritegian agertaraziko da). Gainera, zehatuak Diziiplina Batzordearen aurrean agertu beharko du, eta honek zehapena, lanak eginarazten dituztenen artekoa, ezarriko dio. Ikasturte batean hiru ohartarazpen jasoz gero, zehapena izanen da klasera joateko eskubidea kentzea.



Ohartarazpenak eta Diziplina Batzordearen aurrean agertu beharrak ikasturte batean pilatzeak zehapen hau jasoko du:

\*Lehendabizikoz agertzea, egitekoak betetzea.

\*Bigarrennez agertzea, egitekoak betetzea.

\*Hirugarrenez agertzea, hutsegite oso larriengatik, klasera joateko eskubidea kentzea.

#### **Hutsegite oso larriengatik:**

- a) Klasera justifikatu gabe ez joateagatik bost ohartarazpen izan ondoren, kasuan kasuko ikasturtean ebaluazio jarraitua egiteko eskubidea galtzea. Horrelakoetan, ikasleak ezartzen diren probak egin beharko ditu.
- b) Bidezkoa bada, eragindako kalteak konpontzen edo Ikastetxearen jarduerak aurrera hobeki eramaten lagunduko duten lanak eginaraztea. Lan horiek eskola orduetatik kanpo egin beharko dira, hiru hilabetez gehienez.
- c) Ikastetxera edo zenbait eskolara joateko eskubidea kentzea, gehienez ere bi eskola egunez Lehen Hezkuntzan eta bost eskola egunez Bigarren Hezkuntzan. Horrek ez du ekarriko ebaluazio jarraitua egiteko eskubidea galtzea, eta ikasleari etxean egin beharreko lan batzuk agindu ahal izanen zaizkio.

Hutsegite larriak tutoreak edo horretarako izendatutako organoak zehatuko ditu.

Hutsegite oso larriak horretarako izendatutako organoak zehatuko ditu eta indarreko legediak ezarritakoaren arabera alde zuzenetik espediente egitea ekar dezake ( 417/1992 Foru Dekretua).



### **4.3. ELKARBIZITZARAKO OINARRIZKO ARAUEN KONTRA EMATEN DIREN ERRESPECTU FALTA LARRIEN AURREAN HARTZEN DEN NEURRI BEREZIA**

**(DBH)**

Hezkuntza komunitateko kideen artean, elkarbizitzarako oinarrizko arauen aurrean errespetu falta larriak ematen direnean, momentuko erantzun azkarra jasotzearen garrantzia eta beste ikasleengan izan dezakeen eragina eta eredu-garritasuna kontuan harturik, prozesu berezi hau martxan jarriko da

#### **HELBURUA:**

- Zentroko elkarbizitzako begirunezko giroa bermatzea.

#### **PROZEDURA:**

##### **1. PAUSOA**

Edozein esparrutan komunitateko kide batek elkarbizitzako oinarrizko errespetu eza adierazten duenean, irakasleak momentuan zuzenean zuzendaritzara bidaliko du .

##### **2.-PAUSOA**

Ikasleak gertatutakoaren berri jarriko du idatziz (Hausnarketa orria . 1. eranskina)

##### **3.-PAUSOA**

Irakasleak gertatutakoaren dagokion atala beteko du.

##### **4.-PAUSOA**

Zuzendariak gurasoak jakinaren gainean jarriko ditu lehen bai lehen eta hartutako neurrien berri emanen die, horrela ikasleak ere ikastetxea eta familiaren arteko adostasuna ikus dezan. Zuzendariak bat bateko neurri bezala, lehenik egindako kalte morala zuzentzeko bidea bermatuko du ( barkamena eskatu ..... ) eta hala irudituz Barne Araudiko beste edozein diziplina neurri ezartzea erabakiko du





## 5.-PAUSOA

Beharrezkoa ikusiz gero, Zuzendariak eta tutoreak inplikaturako gurasoekin bilera bat gauzatu dute, bertan gertatutakoaz hausnarketa egin eta ikaslearen jokabidea zuzentzeko hartu beharko liratekeen neurriak adosteko.

## 6.PAUSOA

Aurreko prozesua eman ondoren ikasle batek berriz ere edozein esparrutan hezkuntza komunitateko edozein kiderenganako errespetu falta larrikeria errepikatzen badu , zuzendariak gurasoak jakinarean gainean jarri eta neurri diziplinarioak hartuko ditu barne arautegia aplikatuz (espedientea, jazarpen eta larzeria protokoloa...).



#### 4.3. ELKARBIZITZARAKO OINARRIZKO ARAUEN KONTRA EMATEN DIREN ERRESPECTU FALTA LARRIEN AURREAN HARTZEN DEN NEURRI BEREZIA

(LH)

Hezkuntza komunitateko kideen artean, elkarbizitzarako oinarrizko arauen aurrean errespetu falta larriak ematen direnean, momentuko erantzun azkarra jasotzearen garrantzia eta beste ikasleengan izan dezakeen eragina eta eredugarritasuna kontuan harturik, prozesu berezi hau martxan jarriko da

##### HELBURUA:

- Zentroko elkarbizitzako begirunezko giroa bermatzea.

##### PROZEDURA:

###### 1. PAUSOA

Edozein esparrutan komunitateko kide batek elkarbizitzako oinarrizko errespetu eza adierazten duenean, irakasleak momentuan inplikaturako ikasleen tutoreengana bidaliko ditu .

###### 2.-PAUSOA

Ikasleak gertatutakoaren berri jarriko du idatziz (adinaren arabera) (Hausnarketa orria . 1. eranskina)

###### 3.-PAUSOA

Irakasleak gertatutakoaren dagokion atala beteko du.

###### 4.-PAUSOA

Tutoreak, arazoaren larritasunaren arabera, gurasoak jakinaren gainean jarriko ditu lehen bai lehen eta hartutako neurrien berri emanen die, horrela ikasleak ere ikastetxea eta familiaren arteko adostasuna ikus dezan.

Tutoreak, bat bateko neurri bezala, lehenik egindako kalte morala zuzentzeko bidea bermatuko du ( barkamena eskatu ..... ) eta hala irudituz Barne Araudiko beste edozein diziplina neurri ezartzea erabakiko du



## 5.-PAUSOA

Tutoreak inplikaturako gurasoekin bilera bat gauzatuko du, bertan gertatutakoaz hausnarketa egin eta ikaslearen jokabidea zuzentzeko hartu beharko liratekeen neurriak adosteko.

## 6.PAUSOA

Aurreko prozesua eman ondoren ikasle batek berriz ere edozein esparrutan hezkuntza komunitateko edozein kiderenganako errespetu falta larrikeria errepikatzen badu, neurri diziplinarioak hartu aurretik, tutoreak zuzendariarengana bidaliko du.



#### 4.4. BERDINEN ARTEKO GATAZKA EDOTA IKASKIDEEN JAZARPEN EDO LARDERIA DELA ETA, ESKUHARTZEKO ESKAERETAN EGIN BEHARREKOAK

##### SARRERA

Ikaskideen jazarpen eta larderia kasuek izan dezaketen garrantzia dela-eta, beharrezkoa da azkar eta presaz esku hartzea, arazoaren berri izan bezain pronto.


Agiri hau aholku gisa hartu behar da; prozedura arintzen laguntzeko asmoa du, erantzun eragingarria azkar eta presaz emateko.

Esku-hartzea ikastetxean koordinatu behar da, zuzendaritza taldearen, tutorearen, orientatzailearen, elkarbizitza batzordearen eta irakasleen artean, baina ikastetxetik kanpokoek ere parte har dezakete, honako hauek hain zuzen: Elkarbizitzarako Aholkularitza, hots, elkarbizitza hobetzeko asmoz, ikastetxeetan egiten diren jarduketak koordinatu eta horren gaineko aholkuak emateko Hezkuntza Departamentuak berriki sortu duen kargua; Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua; osasun etxeak eta gizarte zerbitzu oinarrizkoak, eta tartean delituren bat izan dela uste bada, Adingabeen Fiskaltza.

Gauzak horrela, une jakin batean azkar eta eraginkortasunez jokatu beharko da, baina hori ez da aski. Berehalako erantzun bat besterik ez da izanen, baina egoera behin eta berriz errepikatu daiteke etorkizunean. Horregatik, arazoari errotik heldu behar zaio, aurrea hartzeko eta horrelako gauzak berriz errepika ez daitezen. Hau da, ikasgeletan sortzen den indarkeriaren kausak aztertu behar dira eta, ondoren, indarkeriari aurrea hartzeko plan bat eratu, bere baitan hezkuntza komunitate guztia hartuko duena, ezinbestean. Plan horretan balore batzuk aintzat hartu behar dira (xenofobia ezik tolerantzia, pertsonenganako errespetua eta genero-berdintasuna) hezkuntzaren eremu guztietan sustatzeko, baita gurasoen eskoletan eta irakasleen prestakuntzaren arloan ere.

Azkenik, diskrezioa eta konfidentziasuna jardunbidearen ezinbesteko osagai izanen dira, bestela, gehienetan, indarkeria gehiago eta giro txarragoa sortzen baita.





## DEFINICIÓN DE ACOSO E INTIMIDACIÓN ENTRE IGUALES

No todos los conflictos que surgen en la convivencia diaria pueden considerarse maltrato. Las malas relaciones entre iguales, los problemas de comportamiento y de indisciplina son conflictos que, si son solucionados adecuadamente, contribuyen al desarrollo de habilidades para la socialización.

El acoso o bullying se define como un comportamiento **prolongado** de insulto verbal, rechazo social, intimidación psicológica y/o agresión física de unos niños hacia otros, que se convierten, de esta forma, en víctimas.

Para hablar de acoso escolar o bullying deben darse las siguientes condiciones:

1.- Las agresiones se producen sobre una misma persona (víctima indefensa) de **forma reiterada y durante un tiempo prolongado**.

2.- El agresor establece una relación de **dominio-sumisión** sobre la víctima. Existe una clara desigualdad de poder entre el agresor y la víctima.

### TIPOS DE ACOSO E INTIMIDACIÓN

Agresiones físicas, exclusión social, difusión de bulos, motes, robo de material.....



## INDICADORES PARA IDENTIFICAR AL ALUMNO/A VÍCTIMA

- Es **repetidamente**, llamado por motes, ridiculizado, intimidado, degradado, dominado... Se ríen de él de forma poco amigable.
- **Sufre agresiones físicas** de las que no puede defenderse adecuadamente. Presenta arañazos y otras muestras de lesión física.
- Su material está deteriorado y pierde pertenencias con frecuencia.
- Se involucra en peleas donde se encuentra indefenso.
- Está **a menudo** solo/a y excluido/a del grupo.
- Tiene dificultad para hablar en clase y se muestra inseguro/a.
- Aparece depresión, infelicidad, distracción.
- Muestra un gradual deterioro del interés por el trabajo escolar.

Materiales de consulta: página web [www.pnte.cfnavarra.es/convive](http://www.pnte.cfnavarra.es/convive)



## 1.- PROZESUAREN JATORRIA

Hezkuntza komunitateko kide batek jazarpen edo larderia egoera baten berri baldin badu, ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dio idatziz. (ikus ereduak).

## 2.- INFORMAZIOA BILTZEA

Zuzendaritza taldeak orientatzaileak esku hartu behar ote duen erabakiko du eta informazioa biltzeko lana koordinatuko. Era berean, arazoa larria bada, beharrezkoak diren presako diziplina neurriak hartuko ditu.

Informazioa biltzeko, egoeraren behaketa sistematikoa egin behar da, ondoko hauen arabera:

### 2.1. BEHAKETA NON EGIN.

Erasoak gertatzen diren tokietan, sarritan helduak gutxitan joaten diren tokiak izaten baitira, hots, ikastetxeko sarrera-irteerak, korridoreak, gela-aldaketak, komunak, aldagelak...

### 2.2. INFORMAZIO ITURRIAK

Informazioa iturri batean baino gehiagotan kontrastatu behar da. Egoeraz egoera, informazioa biltzeko bide ezberdinak erabiltzea baloratu beharko da, konfidentzialtasun handia behar den kasuetan.

### 2.3. ARRISKU EREMUEN IDENTIFIKAZIOA

Haur batenganako tratu txarrak ustez gertatu izanaren berri jakin bezain pronto, eraso gehiago gertatzea galarazi behar da. Beraz, hartu beharreko lehenbiziko neurrietako bat arrisku eremuetan heldu bat jartzea da eta, orobat, eraso jasandako haurra eremu horietan bakarrik ibiltzea galaraztea.





## 2.4 SALAKETA ETA ERREKLAMAZIOAK JARTZEKO BALIABIDEAK

Ikaskideen jazarpenak edo bullying delakoak dituen arazo nagusietako bat isiltasuna da, eraso gehiagoren jomuga bilakatzeko beldurra dago eta. horretarako, ikastetxeek anonimotua babesteko baliabideak jarriko dituzte: iradokizunen kutxatila, telefono laguna, gatazkak bideratzeko taldea...

### 3.- INFORMAZIOAREN ANALISIA ETA PRESAKO NEURRIAK HARTZEA.

3.1. Zuzendaritza taldea tutorearekin eta orientatzailearekin biltzea, gertaerak aztertzeke eta, kasua larria bada, presako neurri batzuk hartzeke, honako hauek alegia:

- Erasoa jasan duen ikaslea babesteko neurriak.
- Erasotzaileentzat kautelazko diziplina neurriak.
- Familiei informazioa ematea: tutoreak eta/edo zuzendaritza taldeak buruz buruko elkarrizketa bana egingen du esku hartu duten ikasleen familiekin, betiere informazioaren konfidentzialtasuna bermatuz.

3.2. Hartutako informazioa zabaltzea, elkarrizketen bidez, galdetegien bidez, behaketa bidez... Horretarako, datu horiek idatziz jasoko ditu zuzendaritza taldeak.

3.3. Jasotako informazioa aztertu eta baloratzea. Zuzendaritza taldeak eta tutoreak, orientatzailearen aholkuak entzunda, iturri ezberdinen bidez jasotako informazioa baloratuko dute, berdinen arteko tratu txarren zantzurik ote dagoen ikusteko eta haien mota eta larritasuna zehazteke. Horretarako bide hauek erabil daitezke:

- Berdinen arteko tratu txarren definizioa (eskolako jazarpenari buruz irakasleentzat prestatutako informazio liburuxka, Nafarroako Gobernuke Hezkuntza Departamentuak argitaratua).
- Kontsultatutako pertsonengandik jasotako informazioa kontrastatzea (eraso-lekuak, ezaugarriak, nolako erasoak).



3.4. Ikasketa-buruak edo horren ordezkioak hartutako neurriei buruzko txosten idatzia prestatuko du, baita egindako elkarrizketen edukiei buruzkoa ere.

3.5. Ikastetxeko zuzendariak Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuari gertaeren berri emanen dio, idatziz eman ere, kasua larria bada. Txosten idatzi horretan, gutxienez, salatutako gertaerak eta hartutako presako neurriak azalduko dira.

Zuzendaritza taldea txosten horiek gordetzeaz arduratuko da.

#### **4.- ESKU HARTZEKO PLANA**

Esku hartzeko plana koordinatzea zuzendaritza taldeari dagokio, tutorearen eta orientatzailearen laguntzarekin eta haien aholkuak aintzat hartuta. Planean honako hauek bilduko dira:

- **Ukitutako familiei informazioa ematea.**
- **Plana aurrera eramateko behar diren baliabideak.**
- **Parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizuna.**
- **Proposatutako ekintzak noiz egingen diren zehaztea.**
- **Planaren jarraipena eta ebaluazioa.**





## DOKUMENTU EREDUAK

### IKASKIDEEN TRATU TXARRAK ETA LARDERIA JASATEN DIRENEAN ESKU HARTZEKO ESKAERA

IÑIGO ARITZA IKASTOLAKO ZUZENDARIA \_\_\_\_\_

Eguna: \_\_\_\_\_

Eskaeraren arrazoia:

Gertaeren azalpen laburra

Sin: \_\_\_\_\_



**BIZIKIDETZA PLANA**  
PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA  
BERRIKUSKETA: 2006-07  
ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007

IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARREN EDO BULLYING KASUETARAKO TXOSTEN EREDUA

1.-IDENTIFIKAZIO DATUAK

IKASTETXEA	TELEFONO ZK.
HELBIDEA:	HERRIA:
ERASOA JASANDAKO IKASLEA:	KURTSOA:
	ADINA:
ERASOTZAILE NAGUSIA:	KURTSOA:
	ADINA:
2. ERASOTZAILEA:	KURTSOA:
	ADINA:
3. ERASOTZAILEA:	KURTSOA:
	ADINA:

ESKAERAREN EGUNA:

ESKAERA NORK EGIN DUEN:

Familia

Ikaslea

Tutorea

Orientatzailea

Irakaslea

Beste batzuk

.....



## 2.- INFORMAZIOA JASOTZEA

### 2.1.- ERASO MOTA

(I. edo B.: Inoiz edo Behin Ask.: askotan)

Ahokoak                      BAI                      EZ                      I. edo B.                      Ask.  
                                                                 

Irainak, goitzenak, mehatxuak, xantaiak

Taldetik baztertzeko                      BAI                      EZ                      I. edo B.                      Ask.  
                                                                 

Bazterketa, isolatzea, alde batera uztea

Psikologikoa                      BAI                      EZ                      I. edo B.                      Ask.  
                                                                 

Umilazioak, lotsagarri uztea, esamesak zabaltzea.

Fisikoak                      BAI                      EZ                      I. edo B.                      Ask.  
                                                                 

Gauzak apurtu, ezkutatu, kolpeak, ostikadak, bultzadak.

Sexu-jazarpena/abusuak                      BAI                      EZ                      I. edo B.                      Ask.  
                                                                 



## 2.2.- JAZARPENA EDO LARDERIA NON GERTATZEN DEN

Ikasgelan	<input type="checkbox"/>
Korridoreetan/gela aldaketetan	<input type="checkbox"/>
Komunetan	<input type="checkbox"/>
Aldageletan	<input type="checkbox"/>
Ikastetxeko sarrera-irteeretan	<input type="checkbox"/>
Jantokian	<input type="checkbox"/>
Autobusean	<input type="checkbox"/>
Ikastetxetik kanpora	<input type="checkbox"/>
Beste batzuk	<input type="checkbox"/>

## 2.3.- BEHAKETAREN ONDORIOAK.

Jokabidea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Eguna \_\_\_\_\_ Tokia \_\_\_\_\_ Nork ikusia \_\_\_\_\_

Jokabidea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_



Euzko Legebiltzaria

### **BIZIKIDETZA PLANA**

PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA  
BERRIKUSKETA: 2006-07  
ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007

Eguna \_\_\_\_\_ Tokia \_\_\_\_\_ Nork ikusia \_\_\_\_\_

Jokabidea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Eguna \_\_\_\_\_ Tokia \_\_\_\_\_ Nork ikusia \_\_\_\_\_

Jokabidea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Eguna \_\_\_\_\_ Tokia \_\_\_\_\_ Nork ikusia \_\_\_\_\_

Jokabidea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Eguna \_\_\_\_\_ Tokia \_\_\_\_\_ Nork ikusia \_\_\_\_\_

Jokabidea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Eguna \_\_\_\_\_ Tokia \_\_\_\_\_ Nork ikusia \_\_\_\_\_



### 3.- INFORMAZIOAREN ANALISIA ETA PRESAKO NEURRIAK HARTZEA

#### 3.1. ONDOKO HONEK DEITUTAKO BILERA:

\_\_\_\_\_ J/A. KARGUA: \_\_\_\_\_

PARTE-HARTZAILEAK:

.....  
.....

#### 3.2. GERTAKARIEN AZALPEN LABURRA

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

#### 3.3. PRESAKO NEURRIAK BIKTIMARI BABESA EMATEA

NEURRIA: \_\_\_\_\_

ARDURADUNAK: \_\_\_\_\_

KAUTELAZKO DIZIPLINA NEURRIAK:

.....





.....  
.....

### 3.4. DIZIPLINA ESPEDIENTEA

BAI       EZ

EGUNA \_\_\_\_\_ INSTRUKTOREA \_\_\_\_\_

IKASLEAREN DATUAK \_\_\_\_\_

MAILA ..... IKASTURTEA .....

Ikaskideen larderia egiaztatzen ez bada, jarduketa planean hezkuntza komunitateko sektore guztietan aplikatu beharreko aurreneurriak bildu beharko dira.

## 4.- ESKU HARTZEKO PLANA

### 4.1. JARDUKETAK

- Inplikaturik dauden ikasleekin.
- Ikasgelan.
- Familiekin.
- Irakasle-taldearekin.

### 4.2. BEHAR DIREN BALIABIDEAK.

### 4.3. EPEAK.


### 4.4. PLANAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA.



# PROZESUA




## INFORMAZIO JASOTZEA



INGO ARITZA IKASTOLA

### BIZIKIDETZA PLANA

PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA  
BERRIKUSKETA: 2006-07  
ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007

 <small>IÑIGO ARITZA IKASTOLA</small>	JARDUKETAK	BALIABIDEAK	EPEAK	EBALUAZIOA	JARRAIPENA
Inplikaturata dauden ikasleekin					
Ikasgela kideekin					
Familiekin					
Irakasleriarekin					

4.5.



EUSKO ARTEZTA-IRAKASTOLA

**BIZIKIDETZA PLANA**

PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA  
BERRIKUSKETA: 2006-07  
ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007

#### **4.6. IKASTETXEKO LANGILE-GURASO EDO GURASOEN ARTEKO ELKARBIZITZA GATAZKAK**

Ikastetxean edo ikastetxeak antolatutako edozein jardueratan gertatutako liskar edo gatazka baten aurrean salaketa bat eman nahi balitz (betiere ohiko legediaren jarraibideak hautatuko ez balira), Zuzendaritzari luzatu beharko litzaioke eta honek gertakariaren larritasuna, sor dezakeen urduritasun eta tentsio egoera edota langile edo ikasleengan izan ditzakeen ondorio psikologiko kaltegarriak kontuan harturik, dagozkion neurriak hartu edota Ikastetxeak kasu hauetarako aurreikusten dituen organoetara bideratuko du (Artekaritza Batzordea, Zuzendaritza Batzordea).



## **5.-ELKARBIZITZA GAIETAN PARTE HARTUKO DUTEN ORGANOAK**

### **5.1. IKASTETXEKOAK**

#### **5.1.1. ELKARBIZITZA BATZORDEA**

**5.1.1.1. OSAKETA:** Elkarbizitza Batzordea ikastetxeko zuzendariak hautatuko du eta kide hauek izanen ditu: zuzendaria bera, edo horren eskuordetzea duen pertsona, irakasle bat, ikastetxeko guraso elkarteko aita/ama bat eta orientatzailea.

#### **5.1.1.2. EGINKIZUNA:**

- Jokabide larriek sortutako eta Ikastetxeko elkarbizitzarako oso kaltegarriak diren gatazken konponketan artekaritzan parte hartu.
- Ikastetxeko elkarbizitzarako oso kaltegarriak eta larriak diren kasuak aztertu eta kasu bakoitzean hartu beharreko neurrien inguruko hausnarketa egin.
- Otsailean eta kurtso bukaeran gertakarien txostena jaso eta aztertu

#### **5.1.2. KEI III. EREMUA: ELKARBIZITZA ETA HARREMANAK**

**5.1.2.1. OSAKETA:** Bideratzaile bat eta etapa bakoitzeko gutxienaz irakasle bat

#### **5.1.2.2. EGINKIZUNAK:**

- Ikastetxeko Elkarbizitza Plana prestatzea eta eguneratzea.
- Egin beharreko lanak finkatzea.
- Lantaldearen bilerak planifikatzea.
- Ikastetxeko elkarbizitza nolakoa den ezagutzeko jarduerak proposatzea: galdetegiak, behaketa-fitxak...
- Datuak bildu eta prestatzea.
- Aurrea hartu eta esku hartzeko urteko plana prestatzea, honako hauek bilduko dituenak: proposaturiko neurriak, hezkuntza komunitateko kideen eginkizun eta erantzukizunak eta erabiliko diren baliabideak: bitarteko bat



izendatzea, elkarbizitzaren inguruko arazoei heltzeko irakasleek behar duten prestakuntza antolatzea.

- Barne araudia berrikusteko proposamena jaso eta egitea
- Ikasturte bukaeran ebaluazioa egitea.
- Otsailean eta Ikasturte bukaeran gertakari guztiak jasotzen duen txosten bat prestatu, emandako arau haustek, bizikidetza gatazkak, ... eta hartutako neurriak.

### **5.1.3. IKASTETXEKO DIZIPLINA BATZORDEA**

#### **5.1.3.1. Diziiplina Batzordea honakook osatuko dute:**

- Etapako bakoitzeko irakasle bat
- Gestio Batzorde/Eskola Kontseiluko bi guraso.
- Delegatuen batzordearen ordezkari bat.

#### **5.1.3.2. Funtzionamendua:**

-Batzordeak aukeratuko duen irakasle bat izango da lehendakari Batzordearen deialdiak egingo ditu, aktak jasoko ditu, erabakiak aldeei jakinaraziko dizkie eta betetzearen jarraipena egingo du.

Hutsegite oso larrien zehapenerako, Diziiplina Batzordeak bertara hauek deituko ditu, agertzea derrigorrezkoa delarik:

- Ikasle hutsegilea
- Ikaslearen guraso edo tutoreak
- Irakasle tutorea

Aldeak entzun ondoren eta Barne Araudiak dioena aintzat hartuz, egokia deritzon zehapena erabakiko du beti ere bi eguneko epean.

Informazio bilketa prozesua eta hartutako erabakien akta jasoko da.

Hartutako erabakia alde guztiei jakin araziko zaie.

Ezarritako zehapena betetzen den jakiteko jarraipena egingo da



## 5.1.4. ZUZENDARITZA

### 5.1.4.1. EGINKIZUNA:

- Barne Araudian zehaztutakoa
- Elkarbizitza Proiektuan zehaztutakoak
- Legedi orokorrean zehaztutakoa

## 5.1.5. ORIENTATZAILEA

### 5.1.5.1. EGINKIZUNA

- Barne Araudian zehaztutakoa
- Elkarbizitza Proiektuan zehaztutakoak
- Legedi orokorrean zehaztutakoa

## 5.2. IKASTETXEZ KANPOKOAK

### 5.2.1. ELKARBIZITZARAKO AHOLKULARITZA.

#### 5.2.1.1.. EGINKIZUNA

- Elkarbizitza hobetzeko asmoz, ikastetxeetan egiten diren jarduerak koordinatu eta horiei buruz aholku ematea.
- Hezkuntza komunitatea osatzen duten sektore guztiei aholku ematea
- Ikastetxeetan esku hartzea, ikastetxeek beraiek eskatuta, beharrezkoa denean.
- Ikastetxe bakoitzaren egoeraren diagnostiko zehatza egiteko baliabideak eskaintzea, toki bakoitzeko elkarbizitza plana ezartzeko.
- Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman onak bultzatzeko materialak prestatzea.



INGO ARITZA IKASTOLA

#### **BIZIKIDETZA PLANA**

PROPOSAMEN BERRIA: III. EREMUA, HARREMANAK ETA ELKARBIZITZA  
BERRIKUSKETA: 2006-07  
ONARPENA: MAIATZA-EKAINA 2007



[convive@cfnavarra.es](mailto:convive@cfnavarra.es)

Tel. 900 841 551

FUNDACION ANAR 900 202 010

### 5.2.2. IKUSKARITZA

- Bizikidetzaren proiektuan jasotzen diren kasuetan eta beharrezkoa denean Ikuskaria informatu eta koordinatu.

### 5.2.3. OSASUN ZENTROA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

- Egoerak hala eskatzen duenean (jarrera arazo larriak maiztasunez, ez-etortze ugariak, ...) Ikastetxea Orientatzailearen bitartez osasun eta gizarte zerbitzuekin harremanetan jarriko da.

### 5.2.4. BESTE PROFESIONAL BATZUK

- Ikasleen jarrera edota osasun gaietan beste profesional batzuk parte hartzen dutenean, ikastetxea Orientatzailearen bidez hauekin harremanetan egonen da prozesuaren jarraipena eta koordinazioa burutzeko.

## 6.-ARTEKARITZA

- Definizioa, zer ulertzen da artekaritzaz
- Eginkizuna, osaketa, ....

## 7.- ERANSKINAK

[-Barne Araudia](#)

[-Ez-etortzeen justifikantea](#)



- Ez etortzeen kontrol txantiloia
- Falta arinen eta larrien kontrol txantiloia
- Falta arinen abisua gurasoei
- Falta larrien abisua gurasoei
- Garraioa ez erabiltzeko baimen eskaria
- Garraio gatazkak
- Gatazka erregistroa
- Gelatik kanporatzea
- Gurasoei jakinaraztea
- Informatika gelaren erabilera
- Irakasle-Guraso gatazka
- Justifikanterik gabeko ikastola uzteak
- Ikaslearen portaera konpromisoa
- Lana uzteko langileen baimen eskaria
- Ikastetxez kanpoko ekintzetarako baimena
- Gelako materialaren inbentarioa

## **8.- IKASTETXEKO BESTE AKORDIO BATZUK**

